

BERTSOLARITZA EMAKUMEAREN IKUSPUNTUTIK : BERTSOLARITZA ETA EMAKUMEA

Maialen Lujanbio Zugasti

Hitzaldia

2007-05-11, Orereta.

Bertso-eskolak antolatutako “Bertso kritika” ekimenaren baitan
Transkribatzailea: Ainhoa Agirreazaldegia Rekondo

“Gai hau aspaldi dabil hainbat emakumeren buru eta ahotan, eta gaur hemen botako ditudan ideiak batzuk nireak dira eta beste batzuek beste batzuenak, taldekoak...”

1452ko lege baten berri ematen du, profazadoreei (nolabaiteko bertsolari emakumeak) kantatzea galerazten zien legea: “Emakume bertsolarien berri, lehen aldiz, ukapenaren eta debekuaren bidez dakigu”. Bospasei emakume bertsolarien izenen berri ematen du, oso zeharka jaso ditugunak. “Ikusten duzuen bezala, nik ere izenak irakurri egin behar ditut. Emakumea eta bertsolaritzari buruzko hitzaldi guztiak nahiz eta ziurrenik abiapuntu honetatik hasten ditugun, inork ez daki ezer asko honi buruz. Oso leku espezifikotara jo behar da informazioa jasotzeko. Hori guztia adierazgarria da: historia dakigu ondo bilatuta, ukapenen bidez eta zeharkako aipamenen bidez. Bien bitarteko historia guztia galdu egin da”.

“Nik nire buruari esaten nion: kantua hain espresio oinarrizkoa izanik, pentsatzekoa zen emakume bertsolariak izango zirela. Nola izango zen espresio hori gizartearen erdiarena bakarrik? Hori pentsatzea, bat-bateko inprobisazioa, munduan, Euskal Herrian bakarrik existitzen dela pentsatzea bezala litzateke. Eta orain arte horrela pentsatu dugu, bi gaietan pentsatu dugu horrela. Gure zilborrari begira egon gara, edo hobeto esanda gure senarren zilborrari begira”.

“Beraz, analisia eremu publiko / eremu pribatu dikotomiatik egin behar da. Alegia, emakume bertsolariak beti izan dira, baina ez ditugu ezagutu, eremu pribatuetan kantatzen zutelako, eta ez eremu publikoetan. Eta horrela gaur arte”.

“Egun, pauso bat harago bagaude, baina batez ere ageriko gauzetan eman da aldaketa: kantitatean... Kontua da, eta ni gaur hori azaltzen saiatuko naiz, ea gure inkonszienteko zati horretan benetan aldaketa eman den. Emakumea entzuteko garaian, publikoa garen aldetik, zer entzuten dugun, inkonszientekin zer pizten digun emakume batek esaten duenak, edo gizon batek esaten duenak. Eta era berean, emakume bat publiko aurrean dagoenean, adibidez bertsotan, zer pentsatzen duen. Berak ere uste ez duela eta inkonszienteki ze beldur, ze lotsa, ze prejuizio sortzen zaizkion. Zailak dira detektatzen, ez dira oso sentimendu nabarmenak, eta nik uste hemendik aurrerako apustua hor dugula, horiek detektatzen, eta ez hainbeste kopurutan eta gauza horietan”.

“Beraz, jendaurreko akzioez, emakumea publiko aurrean dugu mintzagai. Bertsolaritza kasu honetan adibide bat da, gaia berez emakumea eta jendaurrekotasuna da. Gauza bera gerta liteke kantarien artean, politikan...”

“Ibilbide kronologiko bat egin dut, sentimendu horiei buruz”.

“Sozializazio prozesua txiki-txikitatik hasten da. Neska eta mutilei balore ezberdinak ematen zaizkie, nahi ezta ere. Eskolan nola jolas eremu desberdinak okupatzen dituzten, mutilak nola ohituta dauden espazioa okupatzen, jendaurreko aktibitateak egiten –kirolak eta abar-, neskek jolasteko modu intimoagoa dute, bilduagoa, elkarrengana bilduagoa, beste jolas tipo bat, ez hain

agerikoa. Ikasgelan berdin, hitza, protagonismoa dutenak, gehien okupatzen dutenak, liderrak... mutilak izaten dira. Neskak apalagoak, isilagoak”.

“Txikitatik dagoen panorama hori izanik, bertso eskolara ere oso ezaugarri desberdinekin iristen dira gaztetxoak, oso abilitate ezberdinak dituzte landuta mutikoek eta neskatoek. Mutilak normalki ajolagabeagoak dira, ausartagoak, ez zaie hainbeste inporta gauzak gaizki egitea, ez daude hainbeste pentsatzen bestek beraiez zer pentsatuko duten... Neskak aldiz beti kontuz, lotsatiago, nabarmentzeko erreparoz... Eta batez ere oso perfektionistak dira, perfektionistak autodestruktiboak izateraino, Estitxuk behin idatzi zuen bezala. Eta galdera da zergatik hain perfektionistak. Bertsoen kasuan, nire ustez neskak ohituta ez daudelako nabarmentzen, hitza hartzen, espazioa okupatzen. Eta bertsoa bada aktibitate bat hori eskatzen duena. Eta nolabait esan, ez dagokien eremu batean egotea justifikatzeko modu bakarra da oso oso ondo egitea. Adibideak hainbat dira. Bat kontatuko dut, neroni gertatutakoa. Eta ez nintzen gaztetxo. 2001ean zen, saio potolo bat, Altzon, eta galtza piratekin joan nintzen. Eta gogoratzen dut nire buruari esan niola ‘gaur ondo kantatu behar duzu, ze galtza motzekin etorri zara eta bestela esango dute, hau zer etorri da, bere modelitua paseatzera?’ Horretaz gerora ohartu nintzen, baina uste dut ilustragarria dela, txorakeria dirudi, galtza pirata batzuk, baina beste dimentsio batzuetara eramanda, bada, pentsa. Nola nire buruari esaten nion ‘ondo kantatu behar duzu ze bestela esango dute’, eta ‘esango dute’ hori zenbateraino barneratuta daukagun, eta beti kanpoko errekonozimendu horren bila gabiltzala, eta hortik perfekto egin nahia”.

“Bertso eskoletako irakasleen ahotik jaso da baita ere, bertso eskolak heziketa espezifikoa bat pentsatu behar lukeela, nesken eta mutilen beharrei egokituia, ezin ditugula berdin tratatu, bakoitzak ahalmen batzuk landuago ditu eta ondorioz beharrak ez dira berberak. Horren adibide da, Estitxuk aipatua hau ere, ‘jarri tente, kantatu ozen eta atera bularra’, eta adin batean igual nahikoa lan daukazu titiak disimulatzen, bularra atera eta ozen kantatzen aritzeko. Beraz, bakoitzaren beharretara egokitutako bertso eskola behar dela, bestela bertigoa duen jendea puenting egiten jartzen ari gara”.

“Bertso eskoletako irakasleek aipatu izan dute hau ere, bertso eskola idatzizkoa balitz neskak zoriontsu izango lirakeela. Lehengoan Maddi Oihenarti elkarrizketa bat irakurri nion eta zioen, jende aurrean kantatzea berari ez zaiola gehiegi gustatzen, berak nahiago duela jende artean kantatu”.

“Urte batzuk aurrerago, gaztetxotan, 15-16 urterekin, badakizue, bertso eskoletan neska pila izaten dira, baina adin horretan hainbat eta hainbatek utzi egiten dute. Soziazioarekin harremana duen kontua da. Neska horien larruan jarrita, noiz sentitu du emakume batek bere hitzak garrantzia duela? Hezkuntzak noiz bultzatu du hori? Eta noiz sentitu du emakume batek, berak esateko daukanak jendearengan interesa piztuko duela. Inklusio mikro batetik esateraino. Ez da harritzekoa 15-16 urterekin neskek bertsoa uztea, zeren, hezkuntzaz, pentsa dezakete, gai intimoak direnak –eta beraientzat inportanteak direnak- ez direla jende aurrean ematekoak, eta alderantziz, gai sozialak direnetan eta inportanteak direnetan beraiek ez dutela zer esanik. Beraz ez da harritzekoa beldur hori sortzea, beldurra eta autogutxiespen hori. Zure intereseko gai intimoak sozialki ez dira interesanteak. Eta hori ez da bertsozalaritzan bakarrik gertatzen. Gizonen gaiak, unibertsalak dira, denonak dira. Kontatu izan dut inoiz, beste anekdota bat da, nik, guk, milaka saio egin ditugu burusoiltzeari eta alopeziari buruz. Eta ez da nekagarria, behin eta berriz kanta dezakezu eta ez du nekatzen, gaia neutroa da. Aldiz, Irungo Amaia antzokiko saio batean, depilazioaren inguruan gaia jarri ziguten, eta hiruna bertso generamatzan eta ni jada inkomodo nengoen, jendea aspertzen ariko zela gure kontutxo horrekin pentsatzen, momentuan ez zara konturatzen baina gero zer pentsatua ematen du horrek. Orduan gure kontu intimoak –intimoak, edo- ez dira interesgarriak sozialki. Eta sozialki garrantzia duten gaietan emakumeen hitza ez da

oso garrantzitsua. Eta bestela hor dago adibide gisa Ahotsak ekimena, alderdi politikoetako emakumeen akordio bat, alderdi politikoetako gizonen akordioa balitz, bada, jada akordioa egina egongo litzateke, eta bukatuta egongo litzateke dena, baina alderdietako emakumen akordioa denez ez da ezer gertatzen, ez da inportantea, ez da akordioa. Virginia Imazek esaten zuen bezala, `batzuek gauza inportanteak egiten dituzte eta beste batzuk inportanteak dira. Eta emakumeak lehenengo taldean daude´. Ba, hoixe”.

“Jendeaurrekotasunari buruz ari garela, badago beste bariante bat, eta inportantea nire ustez, eta jende artekotasuna da. Bertsolaritza ez da herri batera joan eta bertsotan egitea bakarrik, kasik gehiago da beste guztia, periferia guztia, jendearekin egon, saio aurreko kontuak, saio ondorengo kontuak, bazkariak, afariak, oso kontestu diferenteetan. Hori da bertsolaritzaren ezaugarri inportante bat. Pentsa 15-16 urteko emakume bat, berarentzat arrotzak izan daitezkeen kontestuetan, adibidez soziedadeko afari, bazkari, kirol elkartetako ez dakit zer festa... Bai adinez eta bai sexuz, ni ibili naizen bezala, gizon helduekin ibili naiz batez ere. Lehengoan Koldok zioen bezala, bertsolari ona izateko entzuten jakin behar da. Beraz, esaterako, 15-16 urterekin Lezoko baserritarren artera bazoaz, hor interes bat bilatu behar duzu, edo antropologikoa, edo soziala, edo linguistikoa, edo nolabaiteko interes bat, bestela erraza da nekatzea, astero ezin zara ibili zu baino 40 urte zaharragoa den jendearekin, zure girokoa ez den jendearekin, ezin zara ibili gustora. Eta kontestu horietan zer entzuten diren, orain agian gutxiago, baina gu ibili ginenean, umore aldetik, emakumeekiko erreferentzia aldetik, entzuten dituzu kriston perlak. Baita gu aurrean geundela ere, gu ez gintuztelako emakume bezala ikusten, igual neska gazte bezala edo, gure presentzia ez zen oso inportantea. Eta bertsolariak ere bai. Bertsolariek ere horrelako jokatu dute gurekin, paternalismoa izan dute, babestu egin gaituzte, ez gaituzte parez parekotzat hartu, ez gaituzte serio hartu, esan nahi dut. Oraintsu arte. Eta gure adineko mutikoekin beste tratu bat izan dute, askoz parez parekoagoa. Gu ez ginen hain serioak edo”.

“Hori ez da pasatzen gazteen artean. Gure adinkideekin harreman ona izan dugu, beraiek nesken presentzia oso natural bizi izan dute bertso eskoletatik. Eta niretzako ezinbesteko baldintza da talde kontzeptu hori. Ni orain bertsotan banabil, neurri handi batean da taldean atera ginelako, eta badaukazu jende bat zure mundua konpartitzen duena, zure giroa, eta natural bizi duena zure presentzia. Neretzako inpreszindiblea da taldearen babesa, plazaz plaza ibiltzeko salto hori ematerako garaian. Bestela hor mutiko gazte asko eror daitezke, baina neska gazte asko dudarik gabe. Giroa ez delako batere aldekoa, edo asko gustatu behar zaizu bestela ambiente hori”.

“Eta horrela, 15-16 urtetako ibilbidetik, plazaz plazako ibilbidera. Barrera fuerte hori, jende asko erortzen den barrera hori aguantatzen baduzu, plazaz plaza has zaitezke. Hor asko aipatzen da diskriminazio positiboa, emakumeen alde egin den diskriminazio positiboa plazatarako salto horretan. Egia da Iratxe Ibarra, Estitxu Arozena eta nire kasuan, adibidez, gu bertsotan egiteko moduan egon baino lehen, saio mordoxka egin genituen, eta diskriminazio positiboa igual horri deituko zaio. Baina, tira, gu ginen pixka bat kuriosidadea, gu eramaten gintuzten esanez `begira zer daukagun, ze elementu, ze bitxo raro´. Eta horrela saio pila egin ditugu. Baina diskriminazio positibo hori erlatiboa da, zeren, Andoni Egañak zioen bezala, deitzeko garaian bada diskriminazio positiboa, baina baloratzeko garaian ez, baizik kontrakoa. Esan nahi dut, neska batek bertsotan ondo egiten duela errekonozitu dezan jendeak, hiru aldiz ona izan behar duela. Behin ona izatea ez da nahikoa. Lehenengo urte dezentetan, `neska izateko ona dek´. Gero beste urte mordoxka batean, `ba, nesken artean onentsuna´. Eta gero agian irits zaitezke noizbait ona izatera, bertsolari izatera. Orduan, hiru aldiz ona izan behar duzu, noizbait esan dezaten `bertsotan egiten du´, ez jada ona edo txarra, bertsotan egiten du, baizik. Lehengoan gure herrian gertatu zen anekdota bat, eta nik asko identifikatzen dut gai honekin, neskato bat, 10-11 urtekoa, pilota eskolan izena ematera joan da, eta entrenatzaileak esan dio ezetz, ezin duela izenik eman, hori mutilentzako bakarrik dela. Eta berak baietz, berak esku pilotan apuntatu nahi zuela. Eta

entrenatzaileak ezetz, ezin zuela konpetitu, ze konpetizioak mutilentzat bakarrik zirela, eta neskentzat pala zegoela. Eta neskato horrek, karakterra izan eta esan omen zion proba bat egingo zutela, uzteko egun horretan entrenatzen, eta maila ematen bazuen, eta erritmoa segitzen bazuen, behintzat entrenatzen uzteko, nahiz ez konpetitu. Eta bestela ez zela gehiago joango. Tratu hori egin omen zuten, eta neska nonbait artista samarra, kriston pasada emango zien denei, eta orduan onartu diote entrenamenduetara joatea. Uste dut oso ondo ilustratzen duela hau dena. Ona ez, oso ona, oso oso ona izan behar duzu onartuko badizute besteekin toki bat. Eta hori, diskriminazio positibotik nahiko urruti dago”.

“Gero, plazako arazo konkretuagotan edo, egun gertatzen diren arazoetan, adibidez bat da, plazatara deitzen den neskak beti neskarena egiten duela, emakumearena egiten du. Bai plantelean, emakumearen papela betetzen du, `neska bat badago jada´ eta bi ez dira behar, eta jaialdian ere, gaietan eta horrela, beti edo gehienetan neskaren papera egiten du. Alde batetik ondo dago, gaietara errealismo handia ematen dielako, eta zu ere zure paperean komodoago sentitzen zarela ez dakit zer paperetan baino, baina kontua da, gizonezkoen peperak oso espezifikoa dira, adibidez, `zu abokatu bat zara, jubilatuta berria eta azken boladan triste samar zabilta, kirola egiten hasi zinen baina horri ere utzi zenion, ez daukazu gogorik ezertarako. Eta hemen daukazu zure emaztea´. Pixkat perfil horretako gaiak dira. Gizonenak super-zehatzak dira, eta emakumeenak dira emakumea eta punto. Beraz, plantelean ere emakumearen papera betetzeaz gain, saioan ere zara emakumea behin eta berriro, eta emakumea bere generalitatean”.

“Esanguratsua da nola neska bakarrarekin jada nahikoa den, bi ez diren behar. Eta orduan neska bakar hori joaten da saioetara bakarrik eta sentitzen du emakume guztien ordezkaria bera dela. Agian hori gure problema bat da, baina hala sentitzen zara. Eta orduan denengana iritsi behar duzu, denen ordezkari hitz egin behar duzu, eta hori problema kreatiboa bihurtzen da. Beste era batekoa ere bai igual, baina baita kreatiboa ere. Esaterako, agian nire sentipena da, baina 2005eko Txapelketa Nagusiko finalean, Unai Iturriaga eta bioi jarri ziguten gaia, hiru seme-alaba genituela eta aspaldiko partez utzi eta gu bakarrik geundela. Eta nik nola kantatu nuen, lehen bertsoa `hiru... hiru... hiru...´ bertso hori bale, gero bigarrena kantatu nuen gutxi gorabehera, `hiru ume badauzkat eta zurekin bat gehiago´ eta hirugarren bertsoan ere ideia horren beretsua zen. Gero eseri nintzen, eta esan nuenaren gaineko analisisa egiten hasi nintzen, eta izugarritzko agobioa hartu nuen, haserretu egin nintzen nire buruarekin, `nik zergatik esan dut hori, nik ez dut hori sinesten, nik ez ditut harremanak horrela bizi nahi...´. Oso maila ideologikoan hasi nintzen analisisa egiten. Zer gertatzen da? Lasaitasuna baneuka geroxeago beste norbait aterako zela emakume paperean, beste emakume tipo baten paperean kantatzera, eta hurrengo saioan edukiko nuela nik ere aukera beste era batera kantatzeko, edo egongo garela 4-5-6 neska, bakoitzak perfil bat emango duguna, hori lasai kantatuko nuen, zeren hori da emakume klase bat. Baina nola ez dagoen gai abaniko hori eta bertsolari emakumeen abaniko hori, bada, zuk sentitzen duzu betebeharra abaniko guzti hori, abaniko ideologiko eta pertsona estiloen abaniko guztia betetzeko. Eta orduan kreatiboki arazo bihurtzen da, zeren hori kantatzen duzu, eta ez zara lasai bizi hori kantatu duzulako”.

“Gai honen arira, arazo da baita ere, umorea egiteko topiko batzuk behar direla, eta topiko horiek konpartitu behar dituela jendeak eta bertsolariak, eta kontua da emakumeei erreferentzia egiten dien topikorik eta umore-mundua ez daukagula landua, ez daukagu erreferentzia asko emakumeen gaitegiaren inguruan umorea egiteko. Umorea, jendeak eta guk konpartituko duguna, ze bestela ez da umorea, jendeak ulertu egin behar du. Eta hor arazo bat dago. Zu topikoetan eror zaitezke, betiko papera egin, igual jendeak ulertuko duen bakarra hori delako, edo jendearekin konpartitzen duzun topiko bakarra hori delako. Eta hori kriston arazoa da, ze hori oso murrizta eta oso mugatzailea da”.

“Eta zu emakume guztien ordezkari sentitzearen kontrakoa, ifrentzua edo beste aldea da, edozein emakume ari denean ere zu identifikatuta sentitzea eta orduan sufritzea. Zer esaten ari den, ondo planteatzen ari den gauzak, zure ikuspegiarekin bat datorren, ez da interesantea horrela esatea, kontraproduzentea izango da...Dena zu zara. Edozein emakumek hitz egiten badu emakumeoi dagokigun gai bati buruz, zu zaude hor, eta orduan sufritu egiten duzu. Hori ez da emakumeekin bakarrik gertatzen, hori gertatzen da talde minorizatu edo gutxitu guztiekin. Euskararekin, euskaldunekin Madrilen... Denak zure ordezkari sentitzen dituzu. Eta hori bada txikiaren edo txikituaren konpleju puntu bat, ezin lasai bizi, bakoitzak pentsa dezala berak nahi duena, ez da zure ordezkaria, baina...”

“Plazaz plazako dinamikari buruz, buruan dabilzkgun kontuak horiek dira. Beti harremanean dago, zu nola sentitzen zaren publikoaren aurrean, eta publikoak zer perzibitzen duen zu ikusten zaituenean. Publikoa diodanean, ni ere publikoa naiz. Emakume, gizon, gazte, zahar... Denak. Nola sentitzen garen neska bat hizketan ari denean. Saioetan, adibidez, oso gutxitan gertatzen da, baina bertso bazkari edo afari batera joaten garenean bi neska kantatzera, ze sentimentu arraroa den. Eta nire buruari galdetzen diot, zergatik sentimendu arraro hau? Sentimendua da nolabait ez daukazula zilegitasun handirik, herri horri kantatzeko bi neskak, mikro batetik. Eta esan nahi nuen, hori lotuta dagoela publikoak emakumeak pertzibitzeko duen moduarekin. Izan ere, emakumeak egiten duena, emakumeek egiten dutena normalki ez da oso serioa, inportantea izaten. Prentsako argazkietan esaterako: imajinatu prentsaurreko batean, mahai baten atzean denak emakumeak, edo prentsaurreko batean, denak gizonak. Oso pertzepzio diferenteak ditugu, nahi gabe ere. Berehala pentsatuko dugu emakumeena dagokiola Basauriko garbitzaileen grebari, edo bularreko minbiziaren ez dakit zeri, eta gizonena auskalo zein azterketa, edo nobel sari, edo... Eta ez da bat bestea baino garrantzitsuagoa dela, baina gizarte mailan ez dute garrantzia bera”.

“Beraz, bi neska herri batean bertsoetan, alde batetik begiratuta, gogorra da. Noiz egon da herri bat bi neskak, edo neska batek esango diona entzuteko prest, isilik? Zeren zu norbait entzuten ari zarenean badiozu mira bat, badiozu errespetu bat, zor diozu inportantzi bat pertsona horri. Eta bi neska, eta gainera bi neska gazte –oraindik zaharrik ez dago-, eta herri oso bat entzuten, ez dakit nola definitu, sentimendu arraroa da, nik sentitzen dut zilegitasunik ez banu bezala, lotsa puntu bat bezala, aldiz gizon batekin bazaude, errekonozimendu bat sentitzen dezu, lasaiago sentitzen zara. Badago gizon bat, eta gizonak errekonozimendua ematen dio denari, prentsaurrekoari ere beste pisu bat emango lioke. Pertzepzioz, hemen, buruaren atzean, inkonszienteki, ez da gauza bera. Horren gakoa edo, eta denaren gakoa, nik uste dut dela, gizonetakoak baduela a prioriko errekonozimendu bat, eta gero egiten du egiten duena. Eta emakumeetakoak baduela a prioriko kuestionamendu bat, eta gero egiten duela egiten duena. Eta horregatik bi aldiz on izan behar du, zalantza batetik abiatzen delako, minus batetik. Gizona zeretik abiatzen da, neutrotik, a prioriko errekonozimendu batetik. Horregatik mutikoak bertso eskoletan ausartagoak dira, inoiz ez baitaie kuestionatuko beraien izatea, beraien direna. Baizik zer egiten duten, igual. Baina emakumeari kuestionatuko zaio baita dena ere, zer egin duen emakume izanda, emakume izateagatik edo emakume izan arren. Baina beti emakumearen bultzada minus horrekin. Beraz, hortik aurrera bide luzeagoa du”.

“Honekin lotuta, kurioa da nola emakumeek a prioriko garantiarik, seguritatearik ez duten ematen, jendeak ez duen ziurtasunik eurei buruz. Nola, esaterako, bertso saioetan publikoak sufritzen duen neskak kantatzen ari direnean. Adibidez, gazteen txapelketetan, neskato bat gelditzen denean, isiltzen denean, gehiago sufritzen du publikoak eta beti `aupá, neska´ bat ateratzen da. Ez bakarrik gaztetxotan. 2001eko Txapelketa Nagusiko finalean, buruz burukora pasa nintzen Andoni Egañarekin, eta handik egun batzuetara Oñatiko zale-zale batek esan zidan: `joe, ikusi zintugunean han, Belodromoan, zu bakarrik Andonirekin... Pentsatu genuen `gaixoa gure Maialen, ai ama, han bakar-bakarrik eta hainbeste jende eta eutsiko al dio?´. Eta nik esaten

nuen, nola, puntu horretara iritsita... En fin, zer esango dut. Baina berak intseguritatea sentitzen zuen. Seguru nago beste bat pasatu balitz ez zitzaiola hori pasatuko, beste seietako bat pasa balitz gizonak ez zuen sentituko `gaixoa, ai ama´. Baina, sufritu, intseguritatea sortzen neskek...”

“Eta beharbada jendeak sentitzen duen intseguritate horregatik ez ote den, hainbeste aipatzen den bertsotan dabilzan neskek ezaugarri maskulinoak forzatzen edo nabarmentzen dituztela. Antropologa batek dio bertsotan dabilzan emakumeak denak gorpuzkera sendokoak direla, eta ahots sendokoak. Egia da Arantzazu Loidik esana dela, berak ez zuela bertsotan gehiegi egin, ahots mehea zuelako. Eta nola jendeak intseguritatea sentitzen duen neskak ikusita, ez ote den publikoa seguruago sentitzen neska horiek gorpuzkera sendokoak direnean, ahotsa ozena dutenean... Bestalde, sendotasun horrek lotura du euskal kulturaren tradizioaren esentziarekin, indarraren irudiarekin...”

“Eta horrela kontatuta, badirudi izugarritzko kalbarioa dela bertsotan aritzea, arazoak besterik ez daudela, eta ez da gezurra. Egia da nik hauek denak kontatu ditudala aurretik atzera begira. Nik daukat sentsazioa, fase hauetatik pasa izan naizenean ez naizela konsziente izan gertatzen ari zenaz, edo ez naizela oso sentsible izan gai honekin. Eta beharbada orain pentsatu beharko dut ba, eskerrak, ze bestela mindu egingo nintzen, eta nekatu, eta paso egingo nuen. Baina momentuan ez naiz oso konsziente izan. Eta kristonak entzun ditut, egon naiz aitonekin soziedadean eta kristonak esan dituzte nire aurrean, baina ni ere, nahiko impermeable izan naiz, baita ere ez nuelako zilegitasunik sentitzen ezer esateko, besteen terrenoan bainengoen, eta beraiek edozer esan zezaketen baina nik ez, ze baimen eske bezala ari nintzen, beraien terrenoa urratzen. Hori ere izan daiteke horregatik. Baina egia da, ez naizela hain sentsiblea izan kontu horiekin gertatzen joan diren ahala, eta orain nagoela sentsibleago”.

“Aurrera begira, nik uste gure apustua dela inkonsziente horretaz konsziente izatea. Gertatzen zaizkigun pertzepzio tranpez, geuk ere baditugunak, denok ditugunak, horiez konsziente izatea, eta gure joakerak zeren araberakoak diren konsziente izatea, eta hor gertatzen diren gauza inbisible horiekin guztiekin alerta egotea. Batetik hori”.

“Eta beste kinka bat aurrera begira da, nola jokatu. Nola jokatu gai honekiko: egin edo aldarrikatu. Agian biak batera egin daitezke. Baina aldaketa hauek, adibidez emakumea bertsolaritzan edo baita beste gai asko ere, euskararenak eta abar, nola joan sartzen, nola joan jendea sentsibilizatzen. Oso dosi kontrolatuetan eman behar da, bestela jendea enpatxatu egin daiteke. Gaurko hitzaldirako ere ez nuen titulutzat `emakumea eta bertsolaritza´ nahi, ze beti hor gabiltza, emakumea eta literatura, emakumea eta politika, emakumea gora, emakumea behera... Beti gai horretan, eta heltzen zara hori izatera, eta okerrago dena, hori bakarrik. Eta heldu daiteke, jendeak zu ez entzutera, jendeak frekuentzia horri ixtera. Beti gai horren bueltan aritzea ez da txarra, baina jendeak zu ez entzutea bai, txarra da, oso txarra. Orduan nola egin, nola neurtu dosia, efektiboa izateko. Hori borroka guztietara aplikatu daiteke. Bertsolari batek esan zidan, nik asmatu nuela bertsotan, asmatu nuelako neurrian, beti neurri egokian. Esaterako, sexu gaietan eta, zirikatutako bai, baina pasa gabe, beti txukun. Eta haserretu egin nintzen berarekin: `neurria ere zuk jartzen duzu. Zuk soportatu dezakezun dosia bada ondo, bestela gaizki`. Baina oso dosi txikitik eman behar dugula argi dago. Zuk beti kalkulatu behar duzu hartzaileak ze dosi soportatu dezakeen, ze bestela ez zara efektiboa. Zuk kriston txapa eman eta parean dagoena ez bada gai hori jasotzeko, zuk esan egingo diozu baina berak entzun ez. Zu lasai geratuko zara baina eragin, ez duzu eragingo. Bide luzeagoa da, baina efektiboagoa da. Bueno, eztabaida dezakegu”.

“Beste puntu bat, gizonetzkoak non kokatzen diren gai honekiko, alegia, hitzaldi hau zela eta, nik esan nuen pixka bat nekatuta nengoela honetaz hitz egiten, beti hitz egin eta hitz egin ari gara, eta pixkat roskaz pasatuta gaudela gai honekin. Eta aldamenetara begiratu eta ohartzen zara hainbat

jendek ez duela sekula pentsatu gai hauei buruz, gugandik hurbil, bertso eskoletan dagoen jende batek. Pixka bat preokupantea da bien artean dagoen amildegia. Hutsune hori berdintzen saiatu behar dugu. Hau ez da emakumeen gaia. Gizonak non kolokatzen diren eta zenbateraino inplikatu nahi duten”.

“Hauxe zen esateko nuena”.

Entzuleen galdera eta gogoetak (G) eta Maialenen erantzunak (M):

G1a-Aldaketarik ekarri du emakumeen sartzek bertsolaritzan?

M1a: Ikuskizunean ez, formatoa, logika, ez da aldatu. Aldatzekotan aldatu dira gaiak, arrazoiketa moduak –politikoki zuzenagoak edo sentsibleagoak igual pixkat gai honekiko-.

G1b-Baina ekarri du bertsozaletzeko era berri bat, edo umorea tratatzeko era berri bat?

M1b-Nik uste baietz. Ez dakit era berri bat, edo lehengoa frenatu duen. Bertsolari gizonezkoek aitortzen dute, beren burua pixka bat aldatu dela. Gizonak urtetan aritu dira paper denak beraiek betez, baita emakumeenak ere, eta gero benetako emakume batekin kantatu dutenean, kuestionatu dituzte beren arrazoiketak. Hori esaten dute beraiek, eta nik uste baietz. Ez dakit zenbateraino sakonean, baina bai kanpora begirakoan, diskurtsoan. Neska batekin ari zara hizketan eta kontuz zer ari zaren esaten, berari buruz ari zara, errespetu pixka bat. Gaiei buruz, oraindik zeregin handia dago, baina aldaketa batzuk... Jendeak gai hori pixka bat entzun du, emakumeak, emakumeen gaiak, gaiak nola tratatu... Gaiak jartzen ari diren pertsonak zerbait entzun dute noizbait horri buruz, eta aldaketatxo batzuk eman dira. Noski, segun ze pertsona, ze leku...

M2 (entzule arteko elkarrizketa batetik abiatuta): “Nik aipatu dudan hau guztia, gutxitzen joan beharko luke, neskak datozen ahala. Hala ere uste dut badagoela oraindik hau”.

G3: Sebastian eta Andoni bezalakoekin hainbeste urte aritu ondoren, giro horretan, modu horretako trebakuntzak mesede egin dizu? Kalte edo mesede egin dizu?

M3: Ez, kalterik ez. Nik hau dena nahiko natural bizi izan dut, ez prozesio bat bezala. Giro horretan jarduteak mesede, baina ni belarri horiekin jarri naizelako ere bai, interesa handik edo hemendik bilatuz (pertsona interesanteak, edo hizkuntza...). Baina taldeak izan du garrantzia, bertso eskola batetik eta gero beste giro hori. Egia da bide horrek zaildu egiten zaituela.

G4 (Nagore Soroak, gogoeta gisa): Nik galdera gustura egingo nieke gizonezkoei. Etengabe ari gara hizketan emakumeaz, eta bai, zu haien tokian ondo kabitu zinen, baina haiek zenbat leku egin zizuten? Beraien forma zenbat aldatu zen?

G5 (Egoitz Zelaiak, gogoeta gisa): Nik ez dakit sexua den, edo egun eragin handiagoa duen adinak. Zuk Oñatiko bertsozaleaz kontatu duzuna, ‘ai, gaixoa’ pentsatu zuela zugatik, Egañarekin buruz buru zeundenean... Guri ere gauza bera gertatu zitzaigun Jon Martinekin, eta zurekin ari zen kantatzen buruz burukoan...!

G6 (Nagore Soroak): Baina Jon Martinengatik ez zenuten esango ‘mutil gaixoa’; pertsona horrekiko hurbiltasunak zuen eragina batez ere.

G7 (Nagore Soroak): Eta esan dugu bertsolaritza aldatu dela, eta bai, beti ari da aldatzen. Baina nork egin du gogoeta bertsolaritza zertan aldatu den emakumea sartu denetik? Emakumeak. Jakin nahi nuke Lizaso eta Egañak zein gogoeta egin duten gai honetaz.

G8 (Estitxu Eizagirre): Bota duzu faltan emakumezko erreferentzirik, amona bertsolaririk, 40 urtekorik? Guretzako, bertso eskolako haurrentzako, zu zara erreferentzia hori... Eta zuk ez duzu sentitu, 'bide guztiak neronen ireki beharra ere...' Zuk badaukazu erreferentzarik, non ikusten duzu zure burua?

M8: Konszienteki erreferentzi baten falta ez dut sumatu, baina bide egiteko sentazioa ere ez dut izan. Agian egin dut, edo egin dugu. Baina inkonszientea izan da dena, bagoaz eta goazen. Egunean egunekoa eginez, egiten joate bat, eginez eginez, orain hemen gaude. Aurrera begira ere pentsamendu bera daukat. Ez dit galduta egoteko sentazioa sortzen aurrean inor ez egoteak. Ikusiko dugu, egingo dugu zerbait. 'Dugu' esatean, nire generazioa esan nahi dut, neska eta mutil.

G9: Badago espaziorik, neskek hain kondizionatuta ez sortzeko, hainbeste kalkulurik gabe?

G10: Bertso eskoletan zer dira gehiago, neskek ala mutilak?

M10: Irakasleek esaten dute, leku askotan gehienak neskek dira. Ni atzo Algortan egon nintzen, eta 20 gaztetxo ziren, horietatik mutilak bi bakarrik.

G10 (beste entzule batek): Eta bi horiek izango dira bertsolari izango direnak!

M11: Bestalde, gaur hemen hitz egin dugu plazarako saltoaz, baina plazez gain, badago beste esparru bat, disfrutearena, plaza handiak izan gabe ere. Interesantea litzateke aztertzea hor zer gertatzen den, neskekin, mutilekin, harreman horrekin. Herri mailako, plazerezko, aisialdiko, kaleko bertsolaritza horretan.

G11 (Nagore Soroa): Mozkorkerian ere, antzeko zerbait gertatuko dela iruditzen zait. Mutilak edonoz eta edonola, eta neskek oso bertso ona duenean soilik. Zuri ere makina bat mutil joango zitzaizkizun bertso kantari mozkorkerian, baina neskarik ez, pentsatzen dut.

M11: Ez, ez.

G11 (Nagore Soroa): Jende aurreko espazio horiek okupatzeko gaitasuna dago batetik, eta gaitasun hori nola errekonozitzen duzun bestetik, beraz, beldur hori hor dago. Ni gaur bi kontuk kezkatu naute. Jendaurreko espazio hori neskek ere bete behar dutela, eta hori landu behar dela, eta bestetik jendearen pertzepzioa. Baina hori nola lantzen, aldatzen da?

M11: Hori da, apustua hori da.

G11 (beste entzule bat): Ez da hain erraza, urtetako kontua da.

G11 (Nagore Soroa): Neskek espazioa okupatzeari buruz, hori ere landu egin behar da. Mutilak arriskatzeko, arrisku hori hartzeko prest zaude. Baina neska perfekzionistek utzi egiten dute. Beste lanketa bat da, kontrol hori kentzen laguntzea.

G12 (Ainara XXX): Urteak dira bertso eskoletan emakume gehiago daudela, baita beste esparru batzuetan ere, aspaldi daude emakume gehiago, baina begira oraindik nola gauden. Ni territorio libreak ere sortzearen aldekoa naiz, eta iruditzen zait tresnak sortu behar direla horretarako. Bertso eskolak izan daitezke esparru, baina tresnak behar dira. Hemen lehiaketak aipatu dira [aurreko eztabaida txiki baten arira eginiko aipamena], baina sentazioa dut lehiaketetan ere gorako tope bat dagoela neskentzako, maila batetik gora lehiaketetan. Eta batez ere, horra iristen ez diren neska guztiak kezkatzen naute.

G13: Heziketa falta eta intentzio falta da, sozializazioari dagokionez.

G14 (Nagore Soroa): Propio eredu aldaketak bilatu behar dira. 5 neska eta mutil 1 saio batean, bertso eskolan 10 minutuz isilik egongo den mutila ea alboko neskek hitz egiten duen... Alemanian eta egiten dira horrelako ahaleginak, zenbait etxetan eta, beti daude neska gehiago mutilak baino, ea horrela gauzak aldatzen diren.

G15 (Egoitz Zelaia): Gizon eta emakumeek umore ezberdina dugu? Ez dut nik uste.

G15 (Judith Montero): Ni musika mundutik nator, eta urtetan pentsatu dut, musika munduan, ze neska erretxina nintzen. Lagunekin izugarrizko barreak egiten nituen, eguneroko basea da, eta inguru horretan, beti erretxinduta (txiste sexistak...). Eta B planera pasa nintzen. Esaterako, esaten nion beste irakasle bati, 15 urteko nire ikasle bat –mutila- ez nuela motibatuta ikusten, eta esaten zidan txiste bezela, joateko minifaldarekin, horrela agian gehiago motibatuko zela. Orduan ni buelta ematen hasi nintzen eta esaten nion etor zedila ikaslea minifaldarekin, eta orduan ni ere igual irakasle hobea izango nintzela, eta badakizue zer gertatzen zen? Akabo konbertsazioa.

G16 (Ainhoa Aranburuk, jende artean sortu den eztabaida baten arira): Kontuz ibili behar dugu `gizonek hau´eta emakumeek hori´ bezalako aipamenetan, zeren gizonak aipatzean, talde horretan dauden denak mindu egiten dira, eta hortik aurrera esaten dena ezin dute entzun, eta gauza berak guk, emakumezkoak aipatzean. Bestalde, gai honetan gizonak eta emakumeok egiteko daukaguna ezberdina da, batzuek gauza batzuk dituzte egiteko, besteok besteak. Eta ez da bat bestea baino lan handiagoa, ez inportanteago, ez deus.

G17 (Estitxu Eizagirre): Nik uste nesken bertso mundua lantzea falta zaigula. Haurrentzat ez da eredu, 35 urteko emakume bat, plazetan ez dabilena, eta bertso eskolan urte askoan kantatu duena. Beste adibide bat jarriko dut: Ana Urkizari egin nion elkarrizketa bat *Argiarako*, eta oso elkarrizketa interesgarria zen, kontatzen zuelako une batean sentitu zuela bere familiak behar zuela eta horregatik literatura utzi zuela une batean, etxeko bizimoduari inportantzia emateko, eta portadarako titularra bilatzen ari ginen eta orduan titularra hortxe geneukan: `Ana Urkiza: nire familiak behar nau´. Eta ondoan duzu Bernardo Atxaga, bere titularrarekin, `literaturan subjektua da garrantzitsuena´ edo nik ez dakit zer. Eta kioskoan ezin dugu ale bat saldu lehen titularrarekin.

G17 (Nagore Soroa): Eta noiz aterako da titular bat `nere familiak behar nau?´

G17 (Estitxu Eizagirre): Hori beste gai bat da. Andoni Egaña irtetea `nere familiak behar nau´ esanez, hori interesgarria litzateke... Bueno, esan nahi dudana da, agian ez ditugula neskak egin nahi ez dutenera behartu behar, neska batek ez duela jende aurrean kantatu nahi badio, ba utzi, eta bizitza osoa bertsoak idazten pasa nahi duela badio, ba egin dezala.

G17 (Ainhoa Aranburu): Bai, baina zergatik ez duten kantatu nahi aztertu ondoren.

G17 (Estitxu Eizagirre): Bueno, bai, denetik egin behar da, baina agian hori ere bai. Edo perfekzionistaz osatutako saio bat, nahi dutenean kanta dezaketela esanez...
